



Ibon Arrizabalaga

Sexismoaren aurka borrokan

“Gizona naiz” esan du, eta paretetan errebotatzen utzi dio esaldiari. Oihartzunak esan diona ez dator sentitzen duenarekin bat, baina berriro esan du “gizona naiz”.

UXUE ALBERDI
Argazkiak: Dani Blanco

«Gizonok bizitza errazagoa dugu, baina ez hobea»

Taberna batean gaude, kafe hutsa eta menta eskatu ditugu. Zergatik ekarri dizkigu zerbitzariak menta niri eta kafe hutsa zuri?

Denok saiatu behar ginateke jendea hezten, adibidez, zerbitzariak galdetzeko ohitura har dezaten. Hartzaile gisa egokitzen zaigulako erraz identifikatzen dugu zerbitzarien herrena, baina geureak ez ditugu hain erraz ikusten. Egin zidaten beste elkarrizketa batekin gogoratu naiz: antropologia ikasle batzuk etorri ziren solasaldia bidez grabatzera. Kargatzai-leak entxufatuta egon behar zuen batera amaituko ez bazen. Mutilak esaten zuen: “Kalean egingo dugu, sekulako eguraldia dago, eta

bukatzen bada, zer egingo zaio?”. Neskak, aldiz: “Ez, goazen etxe barrura eta ziurtatu dezagun elkarrizketa”. Jarrera horiek ez ditugu sexismoarekin lotzen, baina mutilek arriskatzeko eta neskek gauzak zaintzeko duten joeraren adierazle dira. Neskak pertsonen zaintzarako hezten dituzte, eta arduratsu jokatzeko ikasten dute, gauza serioekin ari dira-eta. Mutilen jolasetan, berriz, arriskatzea da saritzen dena. Ez baita gauza bera baloi bat galtzea edo ume bat galtzea.

Noiz hasi zitzaizun genero gaien inguruko interesa pizten?

Txikitatik, mutilengandik jasandako jazarpenaren ondorioz. Negar egiten nuelako edo futboleko ona ez nintzelako lotsarazten nindutenean, banekien zerbait gaizki zegoela, eta akatsa ez zela nirea. Orduetik sentitu dut gizarte honek ez nauela nik merezi dudana bezala tratatu. Neskek beste era batera jasan dute zapalkuntza hori eta, agian, errazago identifikatu dute, bazegoelako hori salatzen zuen tradizio bat. Nik lanak izan nituen nirekin zer gertatzen zen jakiteko. Institutuan lagun feminista batzuk ezaugu nituen, eta ikusi nuen

Nortasun agiria

Ibon Arrizabalaga de Mingo Orion (Gipuzkoa) jaio zen 1973an. Soriakoa du ama, Altzakoa, aita. Hiru anai-arrebetan zaharrena. Arte Ederrak ikasi zituen eta, gerora, zertan lan egin nahi zuen argi ikusi zuenean, Berdintasun Masterra egin zuen EHU. 2004tik berdintasunerako eragilea da. Ez du teknikari plazarik, autonomia da eta tailerrak ematen ditu, batez ere Bigarren Hezkuntzan eta Batxillergoan. Eskoletatik kanpo, gizon taldeekin egiten du lan.



haiek antolatu egiten zirela, bazutela diskurtso bat... Hurbildu nintzen, baina ez nuen juxtu niretzat nahi nuena topatzen. Informazio eskematiko hartan ez zegoen gizonon kasuaz ezer esaten zuenik. Orduan hasi nintzen gizonen artean halakorik ba ote zegoen bilatzen, eta gizon taldeen berri izan nuen.

Kezka azaldu zenuen elkarrizketa egiteko proposamena jasotzean: "Hainbeste emakume urtean lanean eta niri egingo didazu?"

Kontuz ibili behar dugu. Hedabideetan gutxi gertatzen diren gauzak dira albiste. Ez da notizia 10.000 gizonek ez dutela tratatu txarrik eman. Notizia, batek tratatu txarra eman duela da. Ez da albiste bi milioi emakumek tratatu txarrik jaso dituztela. Albistea, bat hil egin dutela da. Eta berdin: ez da notizia hamarkadetan mila saiakera egin direla emakumeak biltzeko... Horregatik, tentuz. Eta baita lehen aipatu dugun heziketarik ere. Zerbitzariari esan diezaiok egun bezala "hurrengoan galdetu norentzat den zer", ba, kazetariari ere galdetu, "segu-ru zaude hau dela egin behar duzun elkarrizketa?"

Ezohikoa albiste. Oraindik harritu egiten al da jendea berdintasunerako eragilea zarela esandakoan?

Aitari, adibidez, kosta egiten zaio lan hau egin ez bizi naitekeela sinestea. Poztu egiten da lana daukadala jakiten duen bakoitzean, baina harritu egiten da. Dena den, lehen generoa aipatu duzu. Niri ez zait iruditzen generoaren sexismoaren aurkako borroka izan da. Argi ikusten dudalako sexismoa zapalketa dela, ez bakarrik emakumeena, baita gizonena ere. Gizonok emakumeak zapaltzen ikasteko heziketa prozesu luze, sakon eta zamatsu bat jasotzen dugula uste dut. Ni ez nintzen hori jakinda jaio. Hori da sexismoaren alde ezkutua, nahi gabe transmititzen dugun curriculum ezkutua.

Zuzendu dezagun: genero gaien orde sexismoaren aurkako borroka, beraz.

Generoa oso termino baliagarria izan da zer gertatzen ari den ulertzeko. Ulertzeko sexu biologikoa gauza bat dela, eta kultura bakoitzak sexuei egotzen diena –aurreiritzi guztiak, rol guztiak, portaera eta jarrera guztiak...–, generoa. Hori sortu egiten da, eta alda daiteke. Aldatu egin behar da. Analisi hori egiteko balio izan du generoak, baina orain generoa eufemismo modura erabiltzen da. "Emakumeen aurkako bortizkeria" erabili beharrean "genero indarkeria" erabiltzen da, gauzak argi ez esateko.

Hitzak ez dira kasualitatez erabiltzen. Hizkera sexista askotan da kezka-iturri.

Gizon hitza

"Noiz erabiltzen dira 'gizon' edo 'hombre' hitzak? 'Gizon batek emakumea erail du', baina ez da esaten 'gizon batek kristoren kontzertua eman du 30.000 pertsonaren aurrean', esaten da 'Bob Dylanek...' edo 'artista batek...'. Gauza onak pertsonai egotzen zaizkie, gauza txarrik gizonen".

Eguneroko ogia da. Normalean, hitzak ez dira sexistak. Hizkuntzak ez dira sexistak, baina gizarte sexistetan erabiltzen direnez, sexismoa islatzen dute. Japonieraz "edertasuna" hitzaren piktogramaren barruan "emakume gaztea" hitzaren piktograma dago txertatua, oker ez banago. Nola aldatu kaligrafia bera, hizkiak edo piktogramak, edertasunaren ideia sexistotik aske gara ahal dadin? Gauza batzuek oso zailak dirudite aldatzen, baina guk sortutakoak diren heinean, alda daitezke.

Luis Boninoren esaldi honekin egin dut topo: "Espainiako Estatuko gizonen %10 matxista konbentzitu da, eta %2-4 dira berdintasunarekin konprometitutako gizonak". Zer gertatzen da beste guztiekin?

Ez zait gustatzen gizonen artean sailkapenak egitea. Guztiok pasa dugu baldintzapen latza, eta emaitzak graduzkoak direla iruditzen zait. Ezin dugu esan "hauek matxistak dira" eta "gu antisexistak gara". Ni antisexista naiz, baina sexista ere bai. Sexista naizelako naiz antisexista, hori aldatu nahi dudalako nigan. Nik barrubarruko uste bati esker egin dezaket nire lana: gizonekin fida naitekeela, baina oso baldintzapen latza jaso dugula zuen zapaltzaile izateko. Eta ez zuena bakarrik! Zuri eta europar garen heinean, munduaren gehiengoaren zapaltzaile izaten ikasi dugu. Eta matxista konbentzituak zorte txarra izan duten gizonak dira, sinetsi egin dute sexismoa ez dela zapalketa, gauzen egoera naturala baizik. Eta zaila da gai honetan gizonak konprometitzea, betidanik sentiarazi izan gaituztelako gai honetan errudun. Egune-oro daude notiziak gizonen egindako barrabaseriei buruz.

Baldintzapen latza aipatu duzu. Zeintzuk dira prozesu horretako pausoak?

Pertsona bat zapaltzaile bihurtzeko oinarrizko puntua pertsona hori bakartzea da. Bizipen mailan isolatuta geratzea. Gizonokin txikitatik jartzen da martxan bakartze-prozesua. Neskek negar egin dezakete baina guk ez. Hori oinarri ona da lehenengo mezua txertatzeko: ezberdina garena. Eta gure buruari galdetzen diogu: zergatik egin dezake berak negar eta nik ez? Jakina, esaten zaigu, ni gehiago naizelako eskatzen zait gehiago. Eta oso adin gaztean, gure lagun erdia galtzen dugu: neskek. Gero, lehiak ezartzen du mutil-lagunen arteko areriotasuna: ez dago guztientzat lekurik, irabazlearentzat baino ez. Neska-lagunen atzetik mutil-lagunak galduz goaz. Eta, azkenik, homofobiaren mamua dago. Nerabezaroan mutilen batekin harremana mantentzea lortu badugu, gizarteak apurtuko du laguntasun hori, marituak bihur ez gaitzen. Eta gero derrigorrezko soldaduska iristen zen. Errematea. Hor bihurtzen ginen gizon. Orain zorio-



AZKEN HITZA

Pribilejoak

“Pribilejoek ez gaituzte zoriontsu egiten. Gizonok bizitza errazagoa dugu, baina ez hobea. Hurbiltasun fisikoaz gozatu ahal izatea, seme-alabekiko harreman estua, gure emozioak ezagutu eta gozatzea... Hori dena daukagu irabazteko. Beste pribilejoak besaulki eder bat bezalakoak dira: erosoak eta uzten zailak, baina zeinen ondo sentitzen garen besaultatik altxa eta benetan guretzat ona den zerbait egiten dugunean? Hori txertatu behar dugu jendearen bizitzetan”.

nez hori ez da derrigorrezkoa, baina aipatutako prozesua ez da oraindik aldatu, eta isolamendu puntu horretara iristen jarraitzen dugu. Horregatik ematen diot halako garrantzia gizon taldeetan kontaktua berreskuratzeari.

Zer egiten duzue gizon taldeetan?

Nireetan, taldetik kanpora aurkitzen ez duten giroa sortzen saiatzen naiz. Gizon talde horietatik kanpo ez dute beren gizatasunaren parte handiagoa erakusteko behar besteko ziurtasunik. Hortik atera bezain pronto ateak ixten hasi behar dira. Ate horiek zabaldu daitezten giro egokia sortzen saiatzen naiz. Ez hainbeste eduki batzuk lantzen edo ondorio batzuetara iristen.

Eta gizonen zeren bila jotzen dute gizon taldeetara?

Itxurakeria albora utzi eta diren bezalakoak izatera. Gizonok beti dena dakigula erakutsi behar izaten dugu, beti sendo gaudela, eztabaidatzeko prest, beti gure lekuan, eta normalean beste norbaiten gainetik. Eta horrela ez gauden egunetan ez dugu inorekin hitz egin nahi izaten. Nik pattal gaudenetan ere azaldu gaitezkeen leku bat sortu nahi nuke, baita lur jota gaudenetan ere. Orain alde ilunena agertzen ari naiz, baina bada gizonen erakusten uzten ez zaigun beste aurpegi bat ere: gure alde jolastia, xamurra. Ondo pasatzeko gogo hori. Hori da, gaur egun, gehien sustatzen dudana. Eguneroko ardura eta seriotasuna ahaztu, firme eta serio ibili beharra ahaztu, eta jolasten hasten gara.

Jolasa denbora galtzarekin identifikatzen da, ordea.

Bai, beti hasten gara jolasekin, eta oso ondo pasatzen dugu, baina gure barruan badago

har bat esaten diguna “baina noiz hasiko gara?”. Ez dute nahi jolasa amaitzea, baina barruko ahots batek esaten die “denbora galtzen ari gara”. Eta, ezta inola ere. Gero beste gauza batzuk ere egiten ditugu, baina ezberdina da iritsi, zigarro bat piztu eta paper batzuk aurrean ditugula hizkuntza sexistari buruz eztabaidan hastea edo behin elkarrekin gozatu hartu eta gero bakoitza bere hausnarketak egiten hastea. Ez gara maila intelektual hotzean jarduten, bakoitzak bizi duena ekartzen du.

“Emakumearen askapenak gizon berria behar du”, irakurri dut orain gutxi. Eta gizonaren askapenak emakume berria?

Askotan esaten da: “Gizon berria”, “maskulinitate berria”, “eredu berriak”...

Ez nago ados. Ez dut uste gizonok berez matxistak garenik, hala koak egin gaituztela uste dut.

Beraz, nahikoa da eraikuntza desegitea, ez da gauza berririk asmatu behar. Kendu armadurak eta izango gara izan behar duguna. Eredu guztiak ere izango baitira eta, ondorioz, benetako pertsonak bertan kabituko izateko zurrunez. Bai emakumeentzat, bai gizonentzat. Bi askapenak paraleluki ulertzen ditut.

Ereduak aipatu dituzu. Zer da queer teoria?

Sexua eta generoa gauza desberdinak direla aipatu dut. Sexua gure gorputzetan anatomikoki eta fisiologikoki igarri daitezkeen diferentzietatik dagokio: genitalak, hormona kopuru batzuk, horiek eragindako ezberdintasunak —ile gehiago edo gutxiago, titi handiagoak ala txikiagoak, ahots aldaketa batzuk...—. Eta, bestetik, geneak daude: XX, XY, XXY, eta abar. Horiek dira arrasto biologikoak. Horie-

“Generoa” hitza eufemismo modura erabiltzen da”

tako batzuei, konkretuki kanpoko gonadei, zama oso bat atxikitzen zaie: zakila izan edo alua izan, kultura bakoitzak eta garai bakoitzak sexu bakoitzari jantzi oso bat, rol oso bat egozten dio: arrosa ala urdina, laburtzeko. Baina kolore horiek antzerkiko jantzi bezala ulertzen baditugu, zera planteatu dezakegu: jaioginetik antzerki bat egiten ari garenez, zergatik ez aukeratu zer antzerki egin nahi dudana? Zer pertsonaia izan nahi dudana? Queer teoriak dio eskemak eraiki egiten direla, eta deseraikitzearekin eta eskemak nahastearekin jolasten du. Hausnarketa interesgarria eta jolastia bultzatzen du. Askoz antzagoak izan gaitezkeela planteatzen du, askoz ezberdinaoak. Askotan aipatzen duten terminoa transgeneroa da, generoak gaintzen dituen pertsona.

Gizona izatea ekintzarekin lotu izan da sarri. “Zer” izatea errazago zaizue “nor” izatea baino?

Clown tailer bat egin nuen behin, inprobisatu egin behar genuen. Jende aurrera atera eta barrutik irteten zitzaiguna egin behar genuen. Emakumeek, nor ziren bazekitenez, irteten eta ez zuten arazorik. Baina gizonak blokeatuta geratzen ziren zerbait egiten hasi arte. Zerbait egiten hasten zirenean, orduan, bazekiten nor ziren; “zapataria naiz”, esaten zuten, baina egiten hasi eta gero. Badakigu besteek gugandik zer espero duten, eta gure izaera besteen arabera antolatzen dugu, lanbidearen arabera, estatusaren arabera. Ez gara sentitzera ausartzen, eta horregatik egiten dugu hainbeste lan, hainbeste kirol, drogatuta egiten gara, telebista ikusten dugu... Edozer gauza, ez sentitzekotan. Ez da ohikoa gizon taldeetan gertatzen dena. Gizon batzuk bi-hiru orduz elkarrekin egotea edan gabe, erre gabe, jan gabe, aurrean paperik gabe, tartean mahairik gabe.

Rolek estutu bai, baina bide bat ere markatzen digute.

“Pertsona bat zapaltzaile
bihurtzeko oinarrizko puntua
pertsona hori bakartzea da”

Bai, rola apurtzeak zalantzarekin moldatu beharra eskatzen du, ziurtasunik gabe aritzea.

“Eredu sexistak gizon izateari gehiegi eskatzen dio, oso rol indartsua eman dio, baina ez dio bere ahultasuna gaintzeko baliabiderik eman. Fikziozko gizonak sortu nahi izan ditu”. Ritxar Baceteren hitzak dira. Fikziozko gizon-emakumez osaturiko munduan bizi al gara?

Gizon izatea eta emakume izatea pertsona izateko moduak dira, eta ez oso ezberdinak. Kontua da “gizon” hitza oso kutsatua dagoela, eta gaztelaniazko “*hombre*” zer esanik ez. Horregatik, oso zaila da gu “gizon” hitzarekin identifikatzea. Baina funtsean oso gauza berdintsua da gizon edo emakume izatea, eta ez nuke esango fikziozkoak garenik. Oso errealak gara uste dut. Gizarte sexista milaka urtetan saiatu da fikzio hori eraikitzen,

baina hainbeste ahalegin eskatzen badio, oraindik lortu ez duen seinale. Gu ez baikara lortu nahi den hori, gu benetakoak gara.

Amaitu da elkarrizketa. Kontua nik ordaintzen badut gaizki sentituko zara?

Gizonengan eragiten den beste ezaugarri bat bada emakumea konkistatu behar hori. Zuek inpresionatu eta babestu behar horretan hala-koak egiten ditugu. Gaztelaraz hiru “pro” dardela esaten da: *protector*, *proveedor*, *procreador*. Antzinatek omen datoz maskulinitatearen hiru ardatz horiek. Hau nik orain dela gutxi ikasi dut bikote harremanetan. Bikoteak maite nauela jakin arren, ez da nahikoa ni ondo sentitzeko. Ez dut ulertzen zergatik maite nauen, eta orduan, zerbait egiten saiatzen naiz hiru norabide horietan. Horrela, behar nauela sentitzen dut. Behar nauela baldin badakit ondo sentitzen naiz, justifikatuta baitago maitasuna. Eta lagundu ezin diodanean... galduta sentitzen naiz. Horregatik, etengabe jardun behar dugu zuentzat gauzak egiten, behar gaituzuela sentitzeko... Baina, tira, ordaindu ezazu, bai. ■

